Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

237 zenbakia
2022 **uztaila**

Prest!

BERBETAN: **ARITZA ESCANDON** DEUSTUKO GIZONEZKOEN FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

ERREPORTAJEA: **LA TXIKA DE LA CERVEZA, PASIOZ EGINDAKO ARTISAU-GARAGARDOA** **BARKUA:** **UDAKO JAIAK**

TOKIKOM

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu ikastola · Txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea. · Erraldoien Ondalan konpartsa · Bihotz Alai Lonkorren Dantza Taldea · Karavan Taldea Deustu · Deustuko Ikastola · Deustuko Jai Batzordea · Deustuko Gazte Lokala · Elorri Bertso Eskola · eaj pnv deustu · S.D. Deusto · ehbildu · Zirikatzen! · Deustuko Gazte Asanblada · Egunsentia Eskaut Taldea 1952tik · Ernai Deustua · Pare Hautsi Mugak Kalean · Bilbao · Bizkaia foru aldundia diputación foral · Baskale

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

237 zenbakia
2022ko uztaila

aurkibidea

Atxarte Salvador Navarro - Nerea Cubillo Urkizu **Iritzia** 4

Kike Puente **Gurera etorriak** 5

e **erreportajea** 6

La Txika de la Cerveza, pasioz egindako artisau garagardoa

Aurreko hilabeteko Pintxodromoa atalean agertutako Casa Milano jatetxe italiar berriari esker ezagutu nuen Deustuko Gipuzkoa kalean dagoen La Txika de la Cerveza artisau garagardoa. Mar Sanchez du izena aipatutako markaren atzean dagoen emakumea, eta ia 6 urte daramatza artisau-garagardoa produzitzen, botilaratzen eta estatuko txoko ezberdinetan saltzen.

San Inazioko jaiak **Jaiak** 10

Julio Urkixo, Unamuno eta Barojarekin auskan (1919) **Behin batean** 12

'Pirinioetako bidea' burutu du Gure Esku Dago Deustuk **Artikulua** 14

b **berbetan** 16

ARITZA ESCANDONekin

Aritza Escandon 2019tik da Deusto Kirol Elkarteko gizonezkoen taldeko entrenatzailea. Leioa, Barakaldo edo Getxoko Arenas taldeetako harrobietan aritu da eta orain 3. RFEF mailan egonkortu da. Igoerako play-offera heldu zen lehen urtean eta aurten haren hirugarren denboraldia zuzenduko du. Taldeari buruz eta bere entrenatzaile ibilbideari buruz hitz egin dugu uztaileko PREST! aldizkarian.

Licor del Polo lantegia (1908) **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

ANTZERKIA Udan etenik ez Pabelloi 6 aretoko programazioan

UDAKO JAIAK Itxaronaldi luzearen ostean, bete-betean ospatu dituzte jaiak

NUTRIZIOA Normala ala normalizatua?

KULTUR TXOTX Dafne Gonzalez Villar eta Enare Muniategi

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Nerea Cubillo Urkizu
PREST! aldizkariko zuzendaria

Zuzendariaren agurra edo antzeko zerbait

Ziurrenik hau irakurtzen ari zarenerako hondartzan egongo naiz, edo igerilekuan, edo ikasturtean zehar irakurri ezin izan dudan liburu horietako bat irakurtzen. Heldu dira merezitako oporrak eta heldu da atsedenerako tartea. Irailean ikusiko dugu elkar!

Urrian hartu nuen Deustualdeko PREST! aldizkaria gidatzeko ardura eta ohiko oztopoak kenduta, ezin gusturago aritu naiz lantaldearekin batera aldizkaria 2700 etxeetara bidaltzeko prestatzen. 25 urte ditut eta ezin dut esan aldizkariaren 20 urteko ibilbidea ikusi eta irakurri dudanik, baina kontziente naizenetik jaso dugu PREST! etxean eta egun ni bezala beste hainbat ume eta gazte daudela jakiteak pozez betetzen nau.

Orrialde hauek ere zuentzako dira. Azken bederatzi hilabete hauetan, aldizkariaren atzean dagoen lana hobeto ezagutu dut, harreman berri asko egin ditut eta aldi berean, inguruko askok aldizkariaren berri ere ez dutela konturatu naiz. Nola izan daiteke? errepikatu diot behin eta berriro neure buruari, 20 urte daramatza(gu) Deustualdean gertatzen direnak jaso eta euskaraz zabaltzen! Argi dago oraindik lan asko dagoela aurretik.

Orrialde hauen atzean dagoen lana ezagutzeaz gain, halako tamaina duen hedabide bat mantentzeak duen kostuaz ere jabetu naiz, eta zintzotasun osoz diot zure ekarpena ere garrantzitsua dela beste hogei urtez proiektu hau zutik mantentzeko.

Bi hamarkada igaro dira jada Deustualdeko PREST! aldizkaria jaio zenetik eta egun aldizkaria zure buzoian jasotzen jarraitzen baduzu deustuar askoren lanari eta babesari esker izan dela gogorarazi nahiko nizuke. Beste 20 urtez Deustualdea euskalduntzen eta informazioa euskaraz zabaltzen jarraitu nahi dugu. Lagunduko diguzu?

Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrunbiloan

Hala bazan ala ez bazan...

Beno, bada, amaierara heldu gara, hurrengo "*iritzigileei*" lekua utzi behar zaie eta. Erronka beteta, oso eskarmentu gogobetegarria izan dela aitortu nahi dizuet. Hamaikagarren zutabea da hau eta kezkatzen nauen enegarren gaiarekin nator. Ez da kezkatzen nauen azkena izango, zoritxarrez, baina bai txoko honetan zuokin partekatuko dudan azkena. Beraz, txarto esanak barkatu, eta ondo esanak kontuan hartu.

Amaitu dira azkenean San Pedro plazako lanak, eta aizue, ez daukat argi zertan datzan 3 milioi euro baino gehiago kostatu den hobekuntza. Modernizatu egin da? Bale. Politago dago? Beno, bakoitzak jakingo du. Erabilgarriagoa da? Ba, aizue, ezetz uste dut. Aitzitik, bai Deustun, bai Bilbon, bai hainbat hiritan orokortzen ari den estilo arkitektonikoa antzeman daiteke.

Autobide erraldoiak banatzen du oraindik. Espazioa zatikatzen duten hiri-altzariz beteta jarraitzen du, lehen bezalaxe. Horrela, hemendik aurrera ere ezingo da taldean elkartu, ezingo da ganorazko jarduera komunitarioetarako erabili, ezingo dira umeak lasai jolastu. Zer egin daiteke bertan? Lerroan eseri eta Lehendakari Agirreko trafikoa begiratu. Baina soilik eguzkiak jotzen ez duenean edo euririk ez dagoenean. Batetik, ez, dago zuhaitzik, ez dago gerizperik.

Bestetik, kiosko historikoa kendu dute, azpian porlana besterik ez duen aterpe bat jartzeko. Ez da plaza bat, lehen ez zen bizigarria, orain ere ez da; eta ez da kasualitatea, sar gaitezen, denda, taberna eta merkataritza zentroetan, eta ez gaitezen elkartu herriko plazan.

“Erriberako jendearen kalitatea maite dut”

Kike Puente

Jatorria: Peru
Bizitokia: Deustuko Erribera

Testua: Nerea Olaziregi

Peru iparraldean dagoen Talara herrikoa da Kike. Diseinatzaile grafikoa da eta duela ia bost urte Deustura etorri zen bere alaba bertan bizi zelako. Kasualitatez, Erribera ezagutu eta bertako giroa ikusita, hemen bizitzea erabaki zuen.

Noiz utzi zenuen zure herria?

2017ko azaroan heldu nintzen Limatik Deustura. Nire alaba Ane hemen bizi zen bere amarekin eta bere ondoan egon nahi nuen. Ni berez, Talarakoa naiz, Peruko iparraldean dago, Ekuadorretik gertu. 16 urte nituela bertatik Limara joan nintzen Bigarren Hezkuntza ikastera.

Gustura zaude hemen?

Oso pozik nago hasieratik.

Lana topatzea kostatu zitzaizun?

Ez, diseinatzaile grafikoa naiz eta hemengo komunikazio eta marketin enpresa batean hasi nintzen berehala lanean. Webguneak diseinatzen ditut; hango titulua balidatu eta Perun egiten nuen lan bera egiten dut hemen. Pandemiak gainera, ez du nire lanean gehiegi eragin.

Nola iritsi zinen Erriberara?

Gure Txoko Skate eskola ezagutzera etorri nintzen. Bi saiakera egin nituen eta ez nuen topatu. Lehenengo aldian gauez etorri nintzen eta beldurra sentitu nuen. Bigarrenean eguna zen, jendea ezagutu nuen eta asko gustatu zitzaidan hemengo giroa. Nire herria,Talara, ekarri zidan gogora.

Etorri zarenetik itzuli zara inoiz Perura?

Oraindik ez. Egia esateko, oraingoz ez dut itzultzeko beharrik eduki.

Zerbaiten falta sumatzen duzu?

Gurasoen falta batez ere. Nagusiak dira hona etortzeko eta egunen baten joan beharko naiz beraiek ikustera.

Eta janaria?

Ez. Hango janaria asko maite dut baina hemen prestatzen ditut hango platerak.

Herri honetatik zerk erakartzen zaitu gehien?

Jendearen kalitatea maite dut, Erriberakoena bereziki. Bilboko beste auzo batzuekin alderatuta, oso ezberdina da hemengo jendea. Hurbilak dira, Liman bizi nintzen auzoko bizilagunak baino hurbilagoak. Harreman handiagoa dut hemen jendearekin han baino.

Etorkizunari begira baduzu erronkarik?

Ametsak ditut. Hori da garrantzitsuena. Eta uste dut betetzen ari direla. Diseinuarekin jarraitu nahi dut, asko gustatzen zaidalako baina tatuajen mundua asko maite dut. Etorkizunean horretan ikusten dut nire burua, jubilatu eta gero agian.

Euskara ikasteko asmorik?

Interesa eta kuriositatea dut eta banabil poliki poliki ikasten. Harrapatuta nauka, asko gustatzen zait. Perun ere bertoko hizkuntzak ditugu, Aymara eta Quechua baina zoritxarrez, ez ditut ezagutzen.



LA TXIKA DE LA CERVEZA, PASIOZ EGINDAKO ARTISAU-GARAGARDOA

Aurreko hilabeteko Pintxodromoa atalean agertutako Casa Milano jatetxe italiar berriari esker ezagutu nuen Deustuko Gipuzkoa kalean dagoen La Txika de la Cerveza artisau garagardoa. Mar Sanchez du izena aipatutako markaren atzean dagoen emakumea eta ia 6 urte daramatza artisau garagardoa produzitzen, botilatzen eta estatu osoko txoko ezberdinetan saltzen.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu **Irudiak:** La Txika de la Cerveza, Nerea Cubillo Urkizu

2003. urtean ingeniaritza kimikoko ikasketak amaitu eta Suediara lanera joan zenean hasi zen Mar Sanchez edo La Txika de la Cerveza garagardoaren mundua gehiago ezagutzen. Suedian lanean zebilen bitartean, pisukideetako batek tabernetan edatetik haratago, garagardoa etxean egin zitekeela erakutsi zion eta Sanchezen arabera, bertan hasi zen produktua gehiago ezagutzen.

"Suediatik itzuli nintzenean, industrian hasi nintzen lanean, baina bertako gauza asko sumatzen nituen faltan: hotza, bizikleta, baita garagardoa egitea ere. Gero eta gehiago zaletzen hasi nintzen. Garagardoa etxean egiteko kit bat erosi nuen, liburuak irakurtzen, informazioa bilatzen…". Hala, urte batetik bestera bere lanarekiko motibazioa gainbeheran zihoan bitartean, garagardoarekiko zaletasuna asko handitu zela azaldu du. 2016ko urriaren 10ean zabaldu zituen ateak La Txika de la Cerveza izenez ezaguna den garagardo markak. Hasieran aipatu bezala, Deustuko Gipuzkoa kalean dauka Sanchezek lokala, baina hau dastaketak egiteko, hornitzaileekin egoteko baita garagardoa gordetzeko erabiltzen du soilik. Izan ere, garagardoa Nafarroako artisau-fabrika batean egiten du.

Garagardogile nomada

Nafarroako lantegiarekin topo egin arte, beste lantegi batzuetan ere izan da Mar bere artisau-garagardoa produzitzen, Toledon eta Vallecasen besteak beste. Garagardoa dagoeneko existitzen diren lantegietan sortzeagatik esaten dio "garagardogile nomada" bere buruari: "Nafarroako fabrika ezagutu nuenean, lantaldean sartzeko eskaini zidaten, bertan beste artisau garagardo batzuk ekoizten dituzte eta nire lantegia ez den arren, osagaiak denon artean erosten ditugu erosketa merkeagoa izan dadin. Elkarri laguntzen diogu garagardoa egiten eta botilatzen". Bi hilabetero 1000 litro produzitzen ditu Marrek Nafarroan.

2008. urteko krisi ekonomikoaren ondorioz abiatu zuen zortzi urte geroago bere enpresa propioa. Gaur egun, baliteke beste krisi baten atarian egotea eta horren aurrean "pixkanaka-pixkanaka" doala adierazi du, "enpresa hain txikia izanda, edozein akatsek eragin handia izan dezakeelako". Produktuen prezioaren igoerari dagokionez, garagardoaren kalitatean izan ezik beste gauza askotan murrizketak egin behar izan dituela dio: "orain botilen etiketak kolorean beharrean zuri-beltzean inprimatzen ditut, banaketarako kutxak berrerabiltzen ditut baina inolaz ere ez dut garagardoaren kalitatea aldatu, eta hori bezeroek nabaritzen dute".

Banaketari dagokionez, hasieran bizikletaz banatzen zituen Bilboko taberna ezberdinek erositako kutxak. Egun, Botxo Riders banatzaileen ardura da kutxa horiek Bilbotik zabaltzea. Deustun, Buho Rojo, Itxasbide eta Casa Milano bezalako tabernetan aurki daiteke La Txika de la Cerveza eta horietara, Sanchezek berak eramaten ditu garagardoak gurdiarekin. Alde Zaharreko eta San Frantziskoko

tabernez gain, Bizkaiko herri ezberdinetako eta Madrilgo taberna askotan ere topatuko dugu Deustun errotuta dagoen produktu hau.

Artisau-garagardoa, hazkunde betean

Artisau-garagardoarekiko zaletasun handia duen gaztea da Olatz Atela. Nafarroako Unibertsitate Publikoan Ingeniaritza Agronomikoa ikasi zuen eta irakasgai baten bitartez ikasi zuen etxean garagardoa egiten. Praktikak Derioko Drunken Bros Brewery artisau-lantegian egin zituen eta gaur egun garagardoaren munduan ez dabilen arren, nabaritzen zaio garagardoarekiko duen interesa. Biek – Sanchezek eta Atelak – kointziditzen dute: "artisau garagardoa hazkunde betean dago. Gero eta jende gehiago animatzen da etxean garagardoa egitera" eta horrez gain, artisau marka asko sortu dira. Halaber, 2011. urtean, GECAN Garagardo Artisau eta Naturaleko Ekoizleen Kofradia izena duen elkartea sortu zen, garagardotegien interesak defendatzeko, legezko aitortza eta esparru bat izateko, baita ekoizten dituzten produktuen kalitatea eta aldi berean bere kultura eta kontsumoa sustatzeko helburuarekin.

Hazkundearekin batera, lehiakortasuna ere hazi da azken urte hauetan bi garagardozaleen arabera. Lehen tabernetako bezeroei iturriko garagardoa eskaintzen zitzaiela gogoratu du Atelak "edateko arinagoa dena". Egun, eskaintza hori asko zabaldu da, eta garagardo argia zein iluna eskaintzeaz gain, bereziagoak ere badira, fruta gustukoak edota beltzak adibidez. Bestalde, Sanchezen arabera, lehiatzen dakien jende asko dago, baina kanpotik datozen eta "ezer errespetatzen ez duten banatzaileak" dira batez ere beldurra ematen diotenak. "Nire sareak hartu eta bezeroak ditudan tokietara joaten dira beste garagardo mota batzuk eskaintzera eta horrek min handia egiten dio nire enpresari, nik soilik 4 erreferente ditudalako. Marka globalekin lehia handia dago, izan ere, esfortzu handia egiten dute kontrolatzen ez duten merkatuaren % 0,1a kentzeko. Ez dira konturatzen ni %0,1 horrekin bizi naitekeela eta haiek ez" azaldu du.

Zer da garagardo artisau bat?

Artisau-garagardoei ez diete gehigarririk edota kontserbagarririk gehitzen, ez dituzte pasteurizatzen, industrialak, aldiz, bai. Prozesuan ere badira desberdintasunak: esaterako, sedimentuak kentzeko ez da kimikorik erabiltzen, eskuz edo galbahe batetik pasatuz kentzen dizkiete. Gutxienez bost etapa ditu: beratzea, egostea, hoztea, hartzitzea eta ontziratzea, guztia instalazio beraren barruan. Egosteko galdarek ezin dituzte 75 hektolitro baino gehiago izan, eta enpresak mikroenpresaren edo enpresa txiki autonomoaren muga du. Fabrikazioan giza faktorea gailentzen da mekanikoaren gainetik, serie handietan gertatzen ez den banakako azken emaitza lortuz. Garagardoaren elaborazioan ez da pasteurizazioa baimentzen, eta horrek natural egiten du.

BUELTAN DIRA SANIKO JAIAK

Uztailaren 23an hasi eta 31ra arte luzatuko dira aurten jaiak, pandemiak markatutako urteak eta gero inoiz baino gogo handiagoekin.

Testua eta argazkiak: Saniko Jai Batzordea

Auzoa berriz ere jai-giroan

Luzeegiak izan dira pandemia garaian bizitako urte gogor hauek, baina aurten berriz ere auzoan jaiak bere osotasunean ospatzeko aukera izan dugu. Ez da batere erraza izan hainbeste denboraren ostean berriro ere egitarau oso bat prestatzea, baina oztopo guztiak atzean utzita, auzoan dagoen antolatzeko gaitasuna agerian geratu da eta astebetez jai giroa kaleetan nagusi izan da. Izan ere, jaien itzulerak auzoko pertsona gehiago erakarri ditu jaietan parte hartzera; aurten Saniko Piratak kuadrillak eta auzoko Mugimendu Sozialistak jaien prestaketarekin bat egin dute.

Betiko egitaraua, inoiz baino ilusio handiagoarekin

Pandemiak eragindako egoeragatik, iaz osasun-neurriek baldintzatutako egitarau murriztua baino ezin izan zen egin. Hori dela eta, aurten inoiz baino ilusio handiagoarekin prestatu dugu jardueraz beteriko astebeteko egitaraua. Puskatu kuadrillak eta Saniko Gazte Asanbladak 23an botatako txupinazoarekin, hasiera eman genien berriz ere umeentzako tailerrak, lehiaketa gastronomikoak, kirol-txapelketak eta beste hainbat ekintza izan dituzten jai hauei. Horrez gain, aurten talde ugariz beteriko eskaintza musikala egon da Levante

enparantzan. Lukiek edo TOC bezalako taldeek auzoko Orbelak eta Ratzinger taldeekin bat egin dute auzo osoa dantzan jartzeko. Nabarmentzekoa da ere auzoko eragileek bultzatutako asteazkeneko Auzo Eguna, Sani Rock jaialdiari leku eman diona eta ostiraleko Gazte Eguna, Gazte Asanbladaren eskutik mozorroz eta jarduera ugariz giro apokaliptikoa ekarri duena auzora.

Elkarlanean tinko

Berriz ere izan dugu auzoa astintzeko eta girotzeko aukera inolako erasorik onartzen ez duen eremu batean, auzoko eragile eta kuadrilla ugarien parte-hartze eta lanari esker. Horregatik, aurten berriz ozen esan dugu:

Gora Sani!
Gora jai herrikoiak!

JULIO URKIXO, UNAMUNO ETA BAROJAREKIN AUSKAN (1919)

Unamunok zabaldu zuen euskarak ez zuela bizitza modernorako balio. Barojak ere idi hori akuilatu zuen. Euskara galarazteko politikak behar zuen estaldura intelektuala zen. Baina orduan batzuek aurpegia eman zioten. Horietakoa izan zen Julio Urkixo deustuarra.

Testua: Hektor Ortega

Karmelo Etxegarai, Arturo Kanpion, Julio Urkixo (erdian zutunik), Txomin Agirre, Serapio Muxika eta Juan Carlos Guerra.

XX. mendearen hasieran euskara galbidera abailduta zegoen Bizkaian. Are gehiago Deustuan. Oso urte gutxitan, jendartean hizkuntza nagusia izatetik norberaren estatus sozialari kalte egiten zion hizkuntza izatera igaro zen. Hobe zen euskaraz ez jakitea, atera kontuak. Ezjakintasunari gorazarre horrek arrazoi asko zituen baina, batez ere, Estatu espainolak euskarari ezarritako debeku, oztopo eta are kriminalizazioari zor zitzaion, Bizkaiko eliteek euren hizkuntza arbuiatu zutela ahaztu barik. Artean Bizkaian euskaldun elebakarrak populazioaren portzentaje esanguratsua ziren.

Kinka hartan eman zuen Migel Unamunok bere hitzaldi ospetsua 1901eko Bilboko Lore Jokoetan. Garaiko hizkuntzalaritzak ezarritako darwinismoari men eginez, mezu goibela zabaldu zuen: euskara ez zela jendarte modernoak behar zuen hizkuntza mota, analitikoa alegia, frantsesa edo gaztelania ez bezala. Euskara utzi, gaztelania gure egin eta euskarari behar zuen ohorezko azken agurra emateko dei egin zuen. Azken agur hori zen, zehaztu zuen, euskara ikergai bihurtzea, bere berezitasun linguistikoak atzemateko. Zalaparta itzela iziotu zuen.

Kasik hogei urte geroago, 1919an alegia, euskara nabarmen endekatuta zegoen gurean, sustraiak ihartu zaizkion zuhaitza antzo. Euskararen ezintasunaren diskurtsoak ere iraun egiten zuen, Pio Baroja bezalakoen eskutik. Donostiarraren aburuz, euskara mentalitate arkaikoaren ordezkaria zen eta, ondorioz, ezin egoki liteke bizimodu modernora.

Baina, balantzaren bestaldean, euskaltzaleak hasiak ziren hizkuntzaren aldeko urrats sendoak ematen: Euskaltzaindia sortu berria zen (1919), euskara irakaskuntzan sartzeko lehenengo ahaleginak orduan gauzatu zituzten eta hedabideetan zein administrazioan ere lekua egiten hasi zitzaion.

1919ko hitzaldia

Unamuno, Baroja eta enparauen erretolikari aurre egiteko ardura, besteak beste, deustuar batek hartu zuen. Julio Urkixo (1871-1950) artean Euskaltzaindia sortu berriko kidea zen, RIEV aldizkari ospetsuko zuzendaria eta, oro har, itzal handiko euskalaria. 1919ko apirilaren 19an hitzaldia eman zuen Bilbon, Bizkaiko Aldundiak gonbidatuta. Erdarazko mintzaldi hori gero argitaratu ere egin zuten, "Lengua internacional y lenguas nacionales. El euskera, lengua de civilización" izenburupean.

Berbetan hasi eta berehala, Urkixok Aldundiko arduradunei eskertu zien hitzaldia emateko gonbita, "ni militatzen dudan alderdi politikoa ez baita orain Aldundian gehiengoa daukana". Izan ere, orduan lortu zuten lehenengoz jeltzaleek Bizkaiko Aldundian gehiengoa. Julio Urkixo, berriz, karlista sutsua zen. Jarraian, euskararen atzerakada baieztatu zuen eta nabarmendu zuen neurririk hartu ezen hizkuntza hilzorian paratu behar zuela gainbehera hark. "Gaur egun galera horrek Araba ia osorik hartu du bere gain, baita Nafarroako eta Bizkaiko eskualde zabalak ere", zehaztu zuen. Urkixoren iritziz, euskal herritar ia guztiek nahi zuten euskarak bizirik irautea, "dozena erdi bat idazle izan ezik". Horietakoa zen, esan legez, Baroja eta hari zuzendu zitzaion, esateko hizkuntzak ere eboluzionatzen direla eta euskarak ildo analitikotik egin zuela bilakaera hori. Euskara galtzeko bidean bazen, ez zen balizko berezko ezintasunen ondorioz, arrazoi soziolinguistikoen poderioz baizik. Urkixok batzuk aitatu zituen: eliteek hizkuntza utzi izana, hizkuntzaren batasun eza eta euskaldun kopuru txikia (gazteleraren parean, jakina). Eta ze aterabide planteatu zuen deustuarrak? Argi zeukan ezin zuela izan norbanako gutxi batzuen kontua: "hizkuntza fenomeno soziala da eta norbanako batek, bere kabuz, eragin txikia eduki dezake; herri batek, ostera, helburuak argi eta aho batez jokatuz, bere garapen eta zabalkundean eragin dezake". Eta jarraian neurriak proposatu zituen: "Gure aldundiek euskararen eta euskarazko irakaskuntza ezarri eta sustatu dezatela; Euskaltzaindiak mugimenduari batasuna eta jarduerei norabide egokia emateko lan egin dezala; baina horretarako lanak eta ahaleginak izan behar dira eta gutako bakoitzak, nork bere aldetik eta elkarlanean, hizkuntzaren biziberritzean lagundu behar du".

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza bultzatzea eskatu zuen Urkixok. Sasoi hartan (1918) abiatu ziren Bilboko umeentzako borondatezko euskara eskolak, jeltzaleen eta karlisten ekimenez.

Aldundiak Bizkaiko auzo-eskolak eraikitzeari ekin zion, herri txikietan irakaskuntza elebiduna emateko asmoz. Eta han-hemen lehenengo ikastolak sortu ziren: Donostia (1914), Tolosa (1922), Iruñea (1932)...

Baina 1936ko uztailaren 18a heldu zen eta Urkixo, Unamuno eta Barojaren lagunek irabazi zuten. Adiskide haiek Don Pio fusilatu nahi izan omen zuten. Don Migel hil ez bazuten, hortxehortxe. Eta Don Julioren zibilizazio hizkuntzaren ametsa bertan akabatu zuten... tarte baterako.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

AISA PROGRAMA MARTXAN, BERBAIZUREN, ECUADOR ETXEAREN ETA AEK-REN ESKUTIK

Urteak dira Berbaizu Euskara Elkarteak, Ecuador Etxearekin elkarlanean, euskalduntze prozesuan sartzeko doako saioak eskaintzen dituela. 2022-2023 ikasturtetik aurrera, saio horiek HABEren Aisa programan oinarrituta eskainiko ditu AEK-k.

Testua eta argazkiak: PREST!

Azken 7 ikasturte hauetan gutxi gora behera, Berbaizuko bazkide batek euskarazko oinarrizko klaseak eskaini ditu Ecuador Etxeak Deustun duen lokalean, gogoa zuenak euskararekin harremanetan hasteko. Saioetan, herrialde ezberdinetako 8-10 lagun elkartu dira azken urte hauetan, ariketa dinamiko ezberdinen bitartez euskara ikasi eta Euskal Herriko kultura gehiago ezagutzeko asmoz. Eskaintza hobetzea xede, HABEren AISA programa abian jartzeko eskaera egin dio Berbaizu Euskara Elkarteak Matxintxu euskaltegiko kideei, eta hala egingo dute irailetik aurrera.

Etorkinak euskarara hurbiltzeko edota euskalduntze prozesuan barneratzeko harrera ikastaroa da AISA. Helburu horrekin, 2004tik harrera ikastaro linguistikoak antolatu dira hainbat tokitan. Harrera-ikastaro horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinentzat (estatutik kanpokoak) diseinatu dira bereziki. Hiru eragileek adostu dutenaren arabera, 60 orduko ikastaroa izango da, dena ondo bidean 2022ko urrian hasiko dena. Gainera, ikasle bakoitzak gehienez halako bi ikastaro egin ditzake. Izen emate ofiziala Matxintxu Larrako AEK euskaltegietan gauzatu beharko dute ikasleek irailean, hala eta guztiz ere, Berbaizu Euskara Elkarteak izen emate horretan laguntzeko prestutasuna agertu du aurretiaz zerrenda osatzen eta matrikularako lagungarria izango den informazio guztia eskaintzen. Informazio gehiago nahi izanez gero, berbaizuko@gmail.com helbidera idatzi.

‘PIRINIOETAKO BIDEA’ BURUTU DU GURE ESKU DAGO DEUSTUK

Gure herria beti egon da mendiari oso lotuta, mendi-taldeak nonahi, Euzko Mendigoxale Batza (XX. mendearen hasieran)…; eta aldarriak ere mendi-tontorretan ikusten ohituak gara: Everest mendian ikur antinuklearra eta ikurrina jarri zituen Martin Zabaleta mendizaleak, esaterako.

Testua eta argazkiak: Gure Esku Dago Deustu



Gure Eskuk burutu berri duen azken ekintza hau, “Pirinioetako Bidea”, aldiz, desberdina izan da. Batetik, katalanekin batera elkarlanean egin delako eta, bestetik, erronka itzelari aurre egiteko gai izan garelako milaka lagunen laguntzarekin: 6000 lagun inguru eta 300 mendi!

Deustu aldeko lagunok ere parte hartu dugu, eta zorte handia izan dugula esan genezake, argiztatu dugun mendia benetan ederra izan delako: Urkulu. Gainera, kokapen ezin ederragoan, Aezkoa eta Nafarroa Beherearen arteko mugan, Irati aldean. Sekulako eguraldia eta talde bikaina. Asteburu-pasa itzela egin dugu 80 lagun inguruk; batzuk autobusez abiatu ziren Deustutik, beste batzuk autoz, eta denok batera hango paisaiaz gozatu eta elkarrekin giro polita sortu dugu. Larunbatean Orbaizetatik abiatu eta Iratiko txoko ederretan ibili ginen, taldetxo batek Mendizar mendira jo zuen, beste batzuek Azalegira, gehienak Arrazolara. Ondoren denok batera bazkaltzera.

Aipatzekoa da Deustualdeko leku guztietako lagunak izan direla: Sani, Ibarrekolanda, Elorrieta, Arangoiti, Done Petri. Erriberakoek huts egin digute, baina aitzakia bazuten: jaiak! Nabarmendu behar da Pentsionisten mugimenduko kideek erronka erraz gainditu zutela eta erakutsi zutela oraindik sasoiko daudela, belaunaldi gogorra eta borrokalaria, eredugarria duten grina. Arratsaldeko 18etan oinez abiatu ginen Urkulura gutako asko, eta besteak jarritako bus lanzaderan. Txistulariekin dantzatu eta denok batera azken malda igotzeari ekin genion, Urkuluko dorrea gure zain.

Gau magikoa izan zen. Itxaropen-argiak piztu ditugu. Gailurretan bizitakoa gure memoria kolektiboan eta bihotzetan geratuko da. Ehunka gailurretara igo gara, baina bideak jarraitu behar du, gure gailurra ez baitago Pirinioetan: gure gailurra zortzimilakoa da! Erabakitzeko eskubidea gure esku izatea lortu arte! Biba zuek!

ARITZA ESCANDONekin

Deustuko gizonezkoen futbol taldeko entrenatzailea

“Harrobitik ateratako

Aritza Escandon 2019tik da Deustu Kirol Elkarteko gizonezkoen taldeko entrenatzailea. Leioa, Barakaldo edo Getxoko Arenas taldeetako harrobietan entrenatzaile aritu da eta orain 3. RFEF mailan egonkortu da. Igoerako play-offera heldu zen lehen urtean eta aurten haren hirugarren denboraldia zuzenduko du. Taldeari buruz eta bere entrenatzaile ibilbideari buruz hitz egin dugu uztaileko PREST! aldizkarian.

Testua: Pablo Martinez Canibe
Argazkiak: Ecuador Etxea

jokalariak gurekin nahi ditugu”

Zer balorazio egiten duzu aurreko denboraldiaren inguruan?
Denboraldi zaila izan da. Sei talde jaitsi behar ziren eta beste batzuk berriz, goi goian egotekoak ziren: Barakaldo, Leioa, Portugalete, filialak... Ia ia taldeen herena jaitsi behar zen. Emaitza aldetik hasiera ez zen oso ona izan baina bai ordea joko aldetik. 10 partida jarraian galdu gabe egin genituen eta ondorioz, egonkortzea lortu genuen. Gol gutxi jaso genituen arren, gola egitea kosta zitzaigun eta hori izan zen sailkapenean gorago ez amaitzeko arrazoia. Balorazio ona da; hala ere, taldeak gehiago merezi zuen.

Nola eragin du 2021ean egin den ligen egituratze berriak?
Egitura berriak gauzak zaildu ditu. Pandemiaren ostean, liga bertan behera geratu zen eta taldeak bi multzotan sakabanatu zituzten. Denboraldi horretan oso ondo ibili ginen eta play-offetara sailkatzea lortu genuen. Deustu bezalako talde batentzat oso emaitza ona izan zen hura. Horren ondoren, egitura berria etorri zen. Egon diren 20 taldeen artean, 6 jaitsi egin dira eta beste hainbat bigarren B mailatik aurrekontu handiarekin heldu dira.

Nola lortu zenuten 2020-2021 denboraldian play-offetara heltzea?
Pandemiaren ondorioz liga bertan behera geratu zenean, taldea birformulatu behar genuela ikusi genuen. Urte horretan, anbizio handia zuten jokalari gazte asko etorri ziren, hots, lan egiteko grina handia eta ideiak oso argi zeuzkaten. Denboraldia ondo hasi genuen eta horrek denboraldi osoan goiko postuetan mantentzeko balio izan zuen.

Nola kudeatzen da urtero hainbat jokalari berri izatea?
Pandemiaren urtean zein aurrekoan play-offera heldu arren, talde erdia berritu genuen. 11 jokalari berri etorri ziren, denak profil berekoak. Aurten jende gehiago mantendu badugu ere, zazpi berri etorri dira. Oreka mantendu behar da. Jokalari berriez gain, kluba zer den dakitenak eta jokalari berriei filosofia transmititzen dietenak egon behar dira ere. Horrela taldearen gaitasuna handiagoa izango da.

Hobeto moldatzen zara gazteekin?
Klubaren apustua da eta ni erabat ados nago. Aurrekontua mugatua da eta ezin gara ibili kontratua duten jokalarien bila soldata handiak ordaintzen, izan ere, oso talde apala gara. Gazteei hirugarren mailan jokatzeko aukera eskaintzen diegu eta denboraldi on bat egiten badute beste maila batzuetara heltzeko aukera izan dezakete. Gainera Etxezurik asko markatzen du. Talde gaztea izan dugu beterano batzuekin nahasirik. Entrenatzaile moduan esperientziadun jokalariak entrenatzeak aberasten nau.

“Ez naiz inoiz Deustun bezain ondo egon”

SAKONEAN

"Mundu honetan hasi nintzenean ez nuen uste hirugarren mailako talde bat entrenatzera helduko nintzenik"

Zein da zure oroitzapenik politena?

Entrenatzaile bezala oroitzapen onenak kadeteekin eta jubenilekin egon nintzenekoak dira. Hasi berria nintzen, dena ematen nuen, hustutzen nintzen eta jokalariekin oso harreman ona izan nuen. Bi urte horiek bereziki gogoratzen ditut.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna entrenatzaile moduan?

Mundu honetan hasi nintzenean ez nuen uste hirugarren mailako talde bat entrenatzera helduko nintzenik eta are gutxiago Deustu moduko talde bat entrenatzera. Daukadan talde teknikoa luxu bat da eta hori da zoriontsu egiten nauena. Hori da helburua, ez dut pentsatzen nora helduko naizen. Hala ere, noizbait atseden hartzea pentsatu dut. Batzuetan zaila da denbora aurkitzea familiarekin egoteko.

Bilbotarra izanik berezia da Deustu entrenatzea?

Hainbat taldetan entrenatu dut eta batzuetan ondo tratatu banaute ere, ez naiz inoiz Deustun bezain ondo egon. Oso talde berezia da. Batez ere elkartean dauden pertsonengatik. Auzoan oso errotuta dago eta oso talde hurbila da. Mugatua izan erren, daukaten guztia ematen dizute. Deustuk ez du zerikusirik beste talde batzuekin eta berezi sentiarazten naute. Gainera hirugarren mailan entrenatzeko aukera eman didate.

Zer eragin dauka Deustuko harrobiak lehen taldean?

Iaz jokalari jubenil bat izan genuen gurekin. Entrenamenduak eta lan saio guztiak lehen taldearekin egin zituen, gure taldean behar genuen. Ahal den neurrian, harrobitik ateratako jokalariak gurekin nahi ditugu. Duela 11 urte hemen egon nintzen kadete eta jubeniletan eta egoerak hobera egin du ordutik. Beheko taldeak kategoria nazionaletan daude; Orokorrean, maila altuagoetan daude gaur egun eta hori epe erdi-luzean aberasgarria izango da.

Nola heldu zitzaizun Deustu entrenatzeko aukera?

Bere garaian hiru urte eman nituen hemen. Zuzendaritza taldea berdina da, eta Asier Ormaetxe kirol zuzendaria ezagutzen dut. Berak eta Gorka Bidaurrazaga entrenatzaileak bigarren entrenatzaile izateko aukera eman zidaten. Atseden urte bat hartzekotan

egon nintzen baina azkenean onartu nuen bigarren entrenatzaile izatea. Hasieran nire paperak bigarren mailakoa izan behar zuen ere, zoritxarrez, Gorkak auto istripu bat izan zuen eta denbora luzez bajan egon zen. Azkenean, hainbat arazo medio, ezinezkoa egin zitzaion entrenatzen jarraitzea eta beraz, egoera ikusita entrenatzaile izateko proposamena egin zidaten.

Etxezurin jokatzea berezia da?
Bai. Zelaia ez dago ondo, zaharkituta dago, baina partidetara hurbiltzen diren zaleek ekarpen handia egiten dute. Bazkide beteranoak, adineko jendea, gazteak, beste kategorietako jokalariak, gurasoak... denetarik dator. Publikoa pizten denean taldeak zaleek nahi dutena ematen die eta berezia da hori ikustea. Etxean jokatzen ditugun partidetan giro berezia sortzen da eta argi dago gure liga hemen dagoela.

Euskara erabiltzen da taldean?
Denetarik dago. Taldean Aranda de Duerokoa den jokalari bat daukagu eta euskaraz ondo moldatzen ez den arren, esango nuke euskarazko presentzia handia dagoela. Staff teknikoko kide gehienak euskaldunak gara eta elkarren artean euskaraz hitz egiten dugu. Halaber, zenbait jokalariekin ere euskaraz egiten dugu. Bilboko talde bat izanda esango nuke erabilera nahiko handia dela. Iaz gure jokalari batek beste talde batzuetan jokatzeko hainbat eskaintza izan zituen eta gurekin egon eta gero aitortu du hemen dagoen giro euskalduna pizgarri bat dela. Taldean geratu da horren ondorioz.

Nolakoa da nesken presentzia zuen kategorian?
Marrazainak daude batez ere. Aurten ez dugu eduki emakumezko arbitrorik ez entrenatzailerik. Hala eta guztiz ere, esango nuke egoera hori apurka-apurka aldatzen ari dela. Oraindik asko falta den arren, egoera normaltzen doa apurka-apurka. Neska gehiago arbitro izatera animatzen diren heinean goiko kategorietan gehiago ikusiko ditugula pentsatzen dut. Esperantza hori daukat.

Zein esango zenuke dela zure ibilbidearen oroitzapenik txarrena?
Bigarren entrenatzaile izan nintzenean Gorkari gertatutakoa. Asko sufritu zuen urte horretan. Hor ikusten duzu futbola baino gauza garrantzitsuagoak daudela, eta futbola bigarren mailan geratzen dela. Bestalde, entrenatzailea naizenez gero, birritan kaleratu naute, baina hori mundu honen parte da. Beste oroitzapen txar bat duela bi urte gertatutakoa da. Gernikaren aurka jokatu behar genuen partida bertan behera geratu zen Gernikako jokalari bat hil egin zelako. Nahiz eta gure taldekoa ez izan, ez zen momentu atsegina izan.

Zein da helburua aurtengo denboraldirako?
Lehenengo partida irabaztea eta gero bigarrena eta horrela datozen 30 partidekin. Zalegoa taldearekin identifikatuta sentitu behar da. Ausartak izan behar gara partida guztietan. Gero ikusi beharko dugu ausardia horrek irabazteko balio digun edo ez.

Nola jokatzen du Aritza Escandonen talde batek?
Protagonistak izatea gustuko dugu. Taldea arerioaren bila joatea gustuko dut. Ez da zain geratu behar. Nire taldeek dena ematen dute eta probokatzera doaz beldurrik gabe. Identitatea izan behar dugu eta hori argi ez badaukagu ez gara Deustu izango eta urrun egongo gara partidak irabaztetik.

"Esango nuke euskararen erabilera altua dela gure taldean"

ARGAZKILARITZA

Bilboko Uriolak udako I. argazki lehiaketa abiatu du

Lehenengo edizioa izango den honetan, parte hartzaileek bi hilabete izango dituzte argazkiak egin eta bidaltzeko. Uztailaren 5az geroztik martxan dago lehiaketa eta irailaren 4ra arte luzatuko da. Epea amaitzean, herritarrek bozkatzeko aukera izango dute, eta haiek aukeratuko dituzte irabazleak. Uriolaren I. Udako Argazki Lehiaketak bi kategoria izango ditu: Bilbon egindako argazkien kategoria eta beste edonon egindakoena. Hala, kategoria bakoitzak bere sariak izango ditu. Kategoria orokorraren kasuan, irabazleak bertako produktuz osatutako otzara jasoko du, eta, horrez gain, bere argazkia inprimatuta eta markoztatuta eramango du etxera. Bilbon egindakoen kasuan, aldiz, saria bi pertsonarentzako jatetxe-otordua izango da, baita argazkia inprimatuta eta markoztatuta jasotzea ere.

BERTSOLARITZA

Bertso saioa izango da Deustun abuztu amaieran

Abuztuaren 27an bertso saioa izango da Deustuko Gaztetxean Lokatz Loreak antolatuta. Hiru bertsolari gaztek abiatutako proiektu berria da Lokatz Loreak, eta abuztuaren 13tik irailaren 17ra luzatuko den bost saioko bertso zirkuitoa izango da antolatutako lehen jarduera. Sare sozialetan azaldu dutenez, saio girotuak izango dira abuztu eta iraila bitartean antolatutakoak. Horiek horrela, abuztuaren 13ean 'Harry Potter saioa' egingo dute Zornotzako Gaztetxean, 27an berriz, 'Bertso Fashion Week' izango da Deustuko Gazte Lokalean. Irailean beste hiru saio antolatu dituzte Portugaleteko Sastraka gaztetxean, Lekeitioko gaztetxean eta Gernikako Astran hurrenez urren. Laster saio guztien gaineko informazio gehiago eskainiko dutela adierazi arren, sarrerak hiru eurotan salgai egongo direla aurreratu dute.



JAIAK

Tintigorri konpartsako Iratxe Palacios, Aste Nagusiko txupinera

Iratxe Palacios izango da 2022ko Aste Nagusiko txupinera. Tintigorri Deustuko konpartsako kidea da, hura izan baita zozketan aurtengo Txupinera izendatzea egokitu zaion konpartsa. 1986an jaiotako Bilbotarra eta Txurdinagako bizilaguna da Palacios, eta administrari eta tabernari gisa lan egiten du. "Oso langilea izateaz gain, Iratxe saltsera da, eta zineman edo telebistan figurante gisa azaltzea du gustuko" adierazi dute Bilboko Konpartsek. Era berean, Itziar Lazkano aktore eta zuzendaria izango da aurtengo Aste Nagusiko pregoilaria. Aktorearen ibilbideagatik eta arte eszenikoen eta kulturaren zabalkunderako Bilbon egindako lanagatik aukeratu dute.

EUSKARA

Berbaizuko lan poltsa osatzeko deialdia zabalik

Berbaizu Euskara Elkarteak lan poltsa bat zabaldu nahi du bere proiektu berriak diseinatu eta martxan daudenak aurrera eramateko: Ikasleen euskara batzordeak, Euskaraldia, ikastetxeekin bilerak... Interesdunek berbaizuko@gmail.com helbide elektronikora bidal dezakete curriculuma zein esparrutan jardun nahiko luketen zehaztuta, dinamizazioan edota elkartearen kudeaketan. Bi esparrutan baldintza hauek aintzat hartuko dira: lehenik eta behin euskara maila ona izatea, ahoz zein idatziz, euskalgintza ezagutzea, jendaurrean aritzeko eta harremanetarako gaitasuna izatea, komunikatzeko gaitasuna izatea eta azkenik, talde, dinamizazio eta antolaketarako gaitasuna ere izatea. Lan eskaintzaren inguruko informazio gehiago Berbaizuren sare sozialetan eta webgunean aurki dezakezue.

Urtea: 1908

Txema Luzuriaga

Licor del Polo lantegia

Deustuko Erriberako 24. zenbakian bi tontor dituen etxe hau ikus daiteke gaur egun ere. Oriberen etxea izenez ezaguna da, Oriberen kalezuloan baitzegoen. Industria ezaugarriak dituen eraikina da eta bertan, XX. mende hasieran Licor del Polo lantegia aurkitzen zen.
El Correo egunkariaren argazkia da honako hau.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

KONPONKETA ETA INSTALAZIOA
☎ 656 410 475
Alonso Pertsianak
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

uriola
uriola.eus

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!
aek

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎ 94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Aste Nagusia bueltan da. Zein da zure konpartsarik gogokoena?

Amaia
Bilbo

Gogokoen dudan txosna Mamiki da. Musikagatik eta, batez ere, dagoen giroagatik, nire lagunek eta nik espazio seguru bat bezala sentitzen dugu. Azken urteotan Mamikin eman dugu denbora gehien eta primeran pasatu dugu. Gora Mamiki!

Irati
Deustu

Kaskagorri. Urtero barra txanda egiten dugu bertan eta giro polita sortzen da. Esango nuke jende guztia ongi etorria sentitzen dela.

Luis
Bilbo

Gehien gustatzen zaidan txosna Mekauen da, aurrera eramaten duen jardun internazionalistagatik. Gainera, urte batean barraren atzealdean aritu nintzen nire lagun taldearekin, eta oso esperientzia polita izan zen.

David
Deustu

Trikimailuko konpartsakidea naiz, hala eta guztiz ere, Arriaga atzealdean dagoen giroa askoz gehiago gustatzen zait.

Amaia
Bergara

Batetik bestera ibiltzen naiz normalean Aste Nagusian, eta ez dakit jakingo nukeen bat aukeratzen… Askapeña edota Mekauen aipatuko nituzke agian, askotariko musika dantzagarria egoten delako eta giro hori gustatzen zaidalako.

Unai
Deustu

Kontzertu onak dituzten txosnetara joaten naiz, baina guztien artean Kaskagorri aukeratuko nuke.

>> ANTZERKIA

UDAN ETENIK EZ PABELLOI 6 ARETOKO PROGRAMAZIOAN

Uztailean amaituko dute 2021-2022 denboraldia eta atseden egun batzuk hartu ostean, El trepa de Palacio antzerkia aurkeztuko dute abuztuan, 2022-23 denboraldiari hasiera ematearekin batera.

Abenduaren 17an eta 18an Arriaga Antzokian aurkeztu zuten Ramon Maria del Valle-Inclánen antzerki klasikoa, *Luces de bohemia*, taularatu dute berriz azken hilabete honetan, izan ere, taldea Villanova de Arousan (Galizia) izan da Valle-Inclán antzerki jaialdian parte hartzen. Galiziako emanaldiaren ondoren, antzezlana Pabelloi 6n antzeztu dute baita ere, uztailaren 21etik 25era bitartean hain zuzen.

Aretoko kideen arabera, obra oso ezaguna eta duela 100 urte baino gehiago argitaratutakoa izan arren, oso gutxitan antzeztu da. Hauxe da Luces de Bohemia antzezlanaren sinopsia: "Max Estrella andaluziarraren bizitzaren azken 24 orduak kontatzen ditu lanak, dagoeneko zaharra, miserablea eta itsua zegoela. Madril ilun, uher, marjinal eta lizun batean barrena egindako erromesaldian, Don Latino de Hispalis lagun zuela, eta garai hartako Madril bohemio batetako pertsonaia ezberdinek emango dioten erantzunekin. Antzezlana herrialde itxuragabe, bidegabe eta zapaltzaile baten parabola tragiko bihurtzen da, 1920ko Espainia, degradatua eta ustelkeriaz beteteako herri laua. Gizarte esperpentikoa, gaurkotasuna gehiegi gogorarazten diguna."

Bestalde, abuztuan estreinaldi batekin emango diote hasiera denboraldiari. *El trepa de palacio* du izena Pabelloi 6k ekoitzitako lan berriak eta Antonio Ugarte bizkaitarraren igoeraren eta gainbeheraren istorioa kontatzen du. Ugarte Nafarroan jaio eta Madrilera joan zen bizitza "hobe" baten bila. Nerabezaroan dantza maisu gisa aritu zen lanean, Fernando VII.a absolutista ezagutu eta negozio gizona bilakatu zen arte. Hala dio sinopsiak: "Gutxitan ikusi izan da Espainian Fernando VII.aren erresumaldian gertatutako ustelkeria eta basakeria bezalakorik. Erregearen gogokoenak, lagun eta hurbilenekoak, lan-banatzaileak, lausangeri zalapartariak, kezkarik gabeko goranahiak… guztiek zuten norberaren garrantzia auzitegi txundigarrian. Baina bat ere ez zuen jakin Antonio Ugarte dantzaria bezala errege absolutuaren nahien inguruan dantza egiten, bizkaitar berritsu eta bizi honek baino ez du merezi "Jauregiko Sitsa" -ren titulu lotsagabea".

El Trepa de Palacio Braulio Cortések idatzitako bufo musikala da. Zuzendaritza lanak Felipe Lozak egin ditu eta aktoreen artean, Leire Ormazabal, Diego Perez, Aitor Echarte, Nahikari Rodriguez, Unai Eleizalde eta Yeray Vazquez aurkitzen dira. Erabateko estreinaldia abuztuaren 19an izango da eta irailaren 11ra arte egongo da ikusgai.

http://sarekada

Euskaraldiak badu bere kantua

Esazu hitz bat. Horixe da Xabier Zabalak konposatutako eta Andoni Egañak idatzitako abestiaren izenburua. Ahotsak jarri dituztenen artean, berriz, Zea Mays taldeko Aiora Renteriarena bilbotarra dago. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte izango da Euskaraldiaren hirugarren edizioa.

Zer Non Ikusi, euskarazko ikusentzunezko edukiak kontsultatzeko plataforma berria

Sarean ikusgai dauden euskaraz sortutako edo euskarara itzulitako edukiak bilatzeko webgunea aurkeztu berri dute. Euskarazko edukiak sarean aurkitzea erraztea du helburu plataformak egileen arabera, eta horrela, Zer Non Ikusi webguneari esker plataforma ezberdinetan aurki daitezkeen filmak kontsultatu daitezke: "ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzea ez da telebista piztea. Edukiak kontsumitzeko modua aldatu egin da eta ohiturak aldatzea egokitu zaigu. Helduok ere ez dugu aukera askorik edukiak euskaraz kontsumitzeko".

Sustatzaileek oraindik lan asko aurretik duten arren, gaur gaurkoz 107 film katalogatu dituzte:



- Youtube: 7 film
- EiTB: 53 film
- Filmin: 40 film
- Amazon Prime Video: 2 film
- Rakuten TV: 5 film
- Netflix: 5 film

>> UDAKO JAIAK

ITXARONALDI LUZEAREN OSTEAN, BETE-BETEAN OSPATU DITUZTE JAIAK

Ekainari agur esan eta uztailari ongi etorria emateaz batera, jaietan murgildu dira Erriberako zein Arangoitiko bizilagunak, baita giro ederrean egin ere, ohiko formatura itzulita.

Testua: Maite Txintxurreta **Argazkiak:** Jose Luis Gómez, Alazne Astorga eta Detomeitos

Erriberako pregoilaria.

Ekintzaz beteriko egunak Erriberan

Erraldoi eta buruhandien kalejiraren ostean, Meritxell Itzaren pregoiak eta txupin-jaurtiketak abiarazi zituen Erriberako jaiak ekainaren 30ean, eta uztailaren 3ra arte luzatu ziren. Neska-mutilak eskolara daramatzan autobusean lan egiten du Itzak aspalditik, eta txikiekin nahiz dagoeneko koskortu direnen belaunaldiekin harreman estua dauka. Haiekin batera iritsi zen autobusez Yolanda Gonzalez plazatxora, eta pasilloa egin zioten omenaldi gisa. “Momentu oso polita” izan zela dio, bai berarentzat, baita Soleto autobusaren jabearentzat ere, urte mordoa baitaramatza zeregin horretan.

Pregoia irakurri eta hasierako urduritasunak alde batera utzita, asko disfrutatu omen zuen giroaz: “Erriberako jendea oso atsegina da eta herri txiki batean bezala funtzionatzen dute. Guztiek onartzen zaituzte, denek deitzen dizute, denek gonbidatu nahi zaituzte… oso jai politak dira”.

Hala, festak hasita, txikienak saskibaloian aritu ziren, eta nagusiek zuzeneko musikaz gozatu zuten ordu txikietara arte. Hurrengo egunetan ere askotariko ekintzak egon ziren, hala nola kirol ekital-

Detomeitos taldearen kontzertua Erriberan.

diak, jolasak, hainbat ikuskizun, kontzertuak nahiz kalejirak. Eta, nola ez, jatekoaren bueltan biltzeko aukera bat baino gehiago.

Ahalik eta hitzordu gehienetan egoten saiatu zen Meritxell Itza, baina aitortu du tarteka ezinezko suertatu zitzaiola: "Dantzariak batetik bestera zebiltzan, kontrako noranzkoan trikitilariak zetozen, une berean kantxetan zerbaitetan jokatzen ari ziren…". Harrituta geratu da egitarauan zenbat gauza kabitzen diren ikusita.

Izan dituen zereginez galdetuta, azaldu du, besteak beste, ikurrina altxatzeaz arduratu zela (lehen saiakeran arazo teknikoak izan arren), mezaren ostean auzokiderik nagusienei opariak banatu zizkiela eta paella lehiaketako epaimahaiaren parte izan zela, bizitzan lehenengoz. Hala ere, berak dioen moduan, nahiko biguna izan zen, eta nota apur bat hobea jarri zien lehiakide guztiei. Tongo egin izana egotzi zien txantxetan batek baino gehiagok epaileei, baina zintzo jokatu zutela dio Itzak, ez zutela inolako eskupekorik onartu.

Azken batean, jendearekin egotea zen bere zeregin nagusia, baina betebeharra baino, gozamena izan da. Horren adibidetzat jarri du igandean egin zuten bazkari herrikoia: "Oso egun berezia izan zen azkena. Erriberakook batu ginen denok batera bazkaltzeko, eta oso-oso gustura egon ginen". Egunaren amaieran, hain zuzen, 2023ra arte agurtu zuten urtero Erriberara jai giroa ekartzen duen Txitxardin.

Arangoitin, txapela buruan

Ekainaren 24an egin zuten Arangoitin kuadrillen jaitsiera, eta horrekin batera abiatu ziren Txapel Jaiak, noiz arte eta uztailaren 3ra arte. Aurtengo pregoia irakurri duena Gautxoriak lagun taldea izan da, 2019an (jaiak normaltasunez ospatu ziren azken aldian) kuadrillen txapelketa irabazi baitzuten.

Arangoitiko jaietako jaitsiera.

Asteburu bietan metatu zen hitzordu kopuru handiena, baina, hala ere, tarteko egun guztietarako ere antolatu zituzten ekintzak. Besteak beste, futbito txapelketako partidak jokatu dituzte aste barruan. Eta ekainaren 30ean, osteguna, auzokideek beren talentua agertoki gainean erakusteko aukera izan zuten, umore ezin hobean igaro zen *Tu sí que vales* lehiaketan.

Arangoitiko jaietako kuadrilen txapelketa.



NORMALA ALA NORMALIZATUA?

Testua: Ainhoa Maiztegi

Hilekoarekin batera norbera gaitasungabetzen duen mina jasan behar izatea ez da normala, nahiz eta normaltzan jo den.

Odol-galerak iraun bitartean pairaturiko mina ekiditeko osasungintzatik jasotako aukera bakarra aho-antisorgailuak edota baginako eraztun antikontzeptiboa izatea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Kirolaria izan edo ez, hiru hilabetez edo gehiagoz hilekorik ez izatea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Urtean zehar kandidiasi baginal errepikakorra izatea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den.

Menstruazioan zehar odol-galera txikiegia edo handiegia izatea edota koaguluak edukitzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Haurdunaldian zehar idorreria jasatea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Sexu harremanak izatean mina sentitzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Hilekoa baino egun batzuk arinago guztiz lur jota sentitzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Hilekoan zehar gorabehera emozionalak bizitzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Gure ziklo menstrualak dituen fase ezberdinak zeintzuk diren eta bakoitzarenak zelakoak diren ez jakitea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den.

Obulaziorik gabeko ziklo menstruala ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Ziklo menstrual guztiek iraupen eta ezaugarri berdinak dituztela pentsatzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Ziklo menstrual irregularrak edukitzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Osasuntsu mantentzeko helburuz karbohidratoetan aberatsak diren elikagaiak ekiditea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Estres fisikoa, emozionala eta energetikoa osasunaren azaldura ugarien oinarri gisa ez hartzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den.

Osasungintza zaharkituaren usteei jarraikiz, min menstruala jasatea larria ez dela pentsatzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Sabelaren behealdean edota bizkarrean min pelbiko kronikoa jasatea (ziklo menstrualari lotua edo ez) ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. Txiza egitean mina sentitzea, bukatu ez duzunaren sentsazioa eta txiza egiteko premiazko beharrizana izatea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den. SOP (kiste ugaridun obarioen sindromea) diagnostikatzeko metodo bakarra ekografia izatea (analitika konkretuak eskatu barik) ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den.

barkua bete herba

Ainhoa Maiztegi
@ainhoamaiztegi.nutricion

Hilekoa eduki baino egun batzuk arinago erretentzioa, sabel puztua, gerrialdeko mina, akne latza, goragalea, okadak, loezina, neurriz gorako nekea, migrainak, arazo digestiboak, antsietatea, depresioa, kontzentrazio edo memoria falta, sexu-grinaren inhibizioa edota bularreko tentsioa bezalako sintomak izatea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den.

Hezkuntzan, tanpoi eta konpresez gain, beste higiene produktuen inguruko informaziorik ez transmititzea ez da normala, nahiz eta normaltzat jo den.

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

DAFNE GONZALEZ VILLAR
Emakumea eta sortzailea

Duela egun batzuk ikusi nuen (A) Plomo, bizitza osoa letrei eskaini dion gizon baten benetako historian oinarritutako dokumentala; bizitza prekarioa, baina literaturak eta edizioak behin eta berriz salbatu dutena. Horrek literaturak batzuetan bizitzak salba ditzakeela pentsatzera eraman ninduen, literatura bidaiatzeko eta elkar ezagutzeko modu gisa uler daitekeelako. Hala ere, nahiagoko nuke irakurtzeko eta irakurritakoa lagunekin partekatzeko ohitura handiagoa egotea, nahiagoko nuke dena hain zoroa ez izatea eta lasai irakurtzeko denbora ateratzea.

Mundua ez litzateke hain hutsala izango gehiago irakurriko bagenu eta hainbeste korrika egiteari utziko bagenio. Ni beti presaka nabilen arren, hilean 3 liburu irakurtzen saiatzen naiz. Lasaitzeko balio dit eta gainera, beste mundu batzuetan murgiltzen laguntzen dit. Liburuen mundua ezagutzen noan heinean, konturatzen naiz zein garrantzitsua den, dokumentalean kontatzen den bezala, liburudenda txikiak eta independenteak babestea, argitaletxe txikietako liburuetara hurbiltzen saiatzea bezainbeste; izan ere, argitaletxe handietako editoreek gero eta diru gehiago eskuratzen duten bitartean, argitaletxe txikietako editoreak gero eta "argalago" daude. Enpresa handietako editoreek jateko prest. Horregatik, liburudenda txikiak bilatzera gonbidatzen zaituztet. Nire kasuan, denbora eman dut erreferentziazko liburudendak bilatzen eta, batez ere, konfiantzazko liburu saltzaileak topatzen. Horien artean Magnolia Rare Books dago, bigarren eskuko liburuen liburudenda bat da eta emakumeek idatzitako literaturaren atal zabal dauka. La Ilusa ere brutala da, feminismoaren eta arrazakeriaren aurkako atal handia du. Gainera, argitaletxe txikiekin lan egiten dute, argitalpena bera asko zaintzen baitute. Bestalde, Saturnina berezia da, bere argiagatik, haur literatura sailagatik eta duen poesia kopuruagatik.

Bilbon, liburudenda asko egon arren, gutxitan aurki daitezke harrera ona egiten dizuten liburu-saltzaileak. Espero dut uda honetan liburu asko aurkitzea, galdu eta aldi berean gozatu ahal izateko!

ENARE MUNIATEGI
Elorri bertso-eskolako kidea

Ez exageratu tira!

Doinua: Iparragirre abila dala

Jarri ezkero azken urtetan
Joan denari begira,
zer edo beste aldatu dela
atera nahi dut erdira,
nahiz batzuen ustetan
berdin hiru urtetan
Ez exageratu tira!
Baina denbora gutxiegian
gauzak aldatu egin dira.

Aprobetxatuz hasi garela
pentsamenduetan nahasten,
gure inguruan pasatzen dena
arakatu nahian hasten
inor ez dela errudun
nahiz hori esaten dugun
omen dugula ikasten,
ez ote zaigu bizitakoa
modu errezean ahazten.

www.bilbaoeuskaraz.eus

EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta Deustualdeko euskalgintza.
20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari.

Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA
Prest!

Berbaizu
euskara elkartea

BILBOKO URIOLAREN UDAKO I. ARGAZKI LEHIAKETA

Uztailaren 4tik irailaren 4ra bitartean

Bidali zure argazkia uriolargazki@gmail.com helbidera!

2 KATEGORIA

KATEGORIA OROKORRA

BILBOKO ARGAZKIEN KATEGORIA

SARIAK

Kategoria orokorra: Bertoko produktuez osatutako janari saskia eta argazkia inprimatuta eta markoztatuta jasotzea.

Bilboko argazkien kategoria: Bi pertsonarentzako otordua eta argazkia inprimatuta eta markoztatuta jasotzea.

*Lehiaketaren gaineko informazio gehiago uriola.eus helbidean

uriola